

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak Cadreitako Vega Mayor enpresaren uzta berriak bisitatu ditu

Florette taldeko enpresak 4,4 milioi euro jaso du Nafarroako Gobernuaren aldetik inbertsio eta berrikuntzarako laguntzetan

Lunes, 28 de mayo de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak Vega Mayor enpresak Cadreitako dituen uzta berriak bisitatu ditu gaur goizean, kimu berrien laborantzaz (kanonigoak, berroak, rukulak, letxuga...) arduratzen dena. Espainian aitzindaria den ustiapena da, aitzindaria ekoizpenaren ikuspegitik nahiz ikuspegi teknologikotik entsaladen arlorako, eta fabrikari lehen beste herrialde batzuetan erosten zen lehengaia emango die.



Barcina Lehendakaria eta Goicoechea kontseilaria, Florette enpresako arduradunekin.

Florette taldeko enpresak 4.459.327 euro jaso du Nafarroako Gobernuaren aldetik 2003. urtetik hona. Kopuru horretatik, 4.170.122 euro inbertsiorako laguntza-kontzeptuan izan dira eta 289.205 euro berrikuntzarako laguntzetan.

Barcina Lehendakariak azpimarratu duenez, "zailtasun ekonomiko handiko urte batean, Nafarroan nahiz Espainia guztian, positiboa da egiaztatzea badirela enpresak Foru Komunitaterako estrategikoa den sektore baten aldeko apustua egiten jarraitzen dutenak, nekazaritzako elikagaien sektorean, hain zuzen: garatzen joan nahi dugun funtsezko sektorea". Gainera, Barcinak nabarmendu du uzta horien jabetzaren % 51 Nafarroako bi nekazarirena dela.

Bisitan izan da ere, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilari Lourdes Goicoechea. Enpresaren aldetik, bertan izan dira Florette taldeko lehendakari Louis Marie Le Coutour; Florette Ibérica-ko zuzendari nagusi Juan Miguel Floristán eta Florette Agrícola

ko zuzendari nagusi Jorge Moreno.

Ustiapeneko nekazari-bazkide José María Pejenaute eta María José Oscoz ere bertan izan dira, bai eta Cadreita eta Milagroko alkate Berta Pejenaute eta Yolanda Ibáñez ere, hurrenez hurren.

Bisita baliatu da Foru Gobernuako agintari gorenak eta enpresako maila handieneko zuzendaritzako kideak biltzeko, elkar ezagutzeko eta bi aldeen plan estrategikoen berri izateko.

Uztak

Milca (Milagro eta Cadreitagatik) izena duen nekazaritza-ustiapena Florette Agrícola-rena da % 49an eta % 51n lehen aipatutako bi nekazariena, aldi berean ustiapena kudeatzeaz arduratzen direnak.

Negutegiek 30 hektareatako azalera hartzen dute guztira 36 hektareatako azalera baten gainean, eta 22 lanpostu berri sortu dituzte.

Ustiapen honetan 4,6 milioi euro inbertitu dira 2010 eta 2011 artean. Obrak 2010eko martxoan hasi eta 2011ko abuztuan amaitu ziren; hala, azken fasea urte horren amaieran funtzionatzen hasi zen. Lehen bilketak 2010eko urrian egin ziren.

Kimu berriak bertan lantzen dira (kanonigoak, berroak, rukula, letxuga...) ondoren industrializatzeko eta saltzeko IV. gaman. Ekoiztako bolumena urtean 1.500 tonatakoa da, eta kopuru horretatik % 80 Florette taldeak Milagron duen fabrian egiten da. Enpresatik adierazi dutenez, balio erantsi handiko lehengaiak dira, oso ahulak eta logistika-kostu garrantzitsua duena, eta behar bezala garatzeko osagai tekniko esanguratsua eskatzen dute.

1. argazki-oina (ezkerretik eskuinera):

Juan Miguel Floristán, Lourdes Goicoechea, Louis Marie Le Coutour, Yolanda Barcina eta Jorge Moreno.

2. argazki-oina (ezkerretik eskuinera):



Barcina Lehendakaria Florette-ko
zuzendaritzako kide Jorge Moreno-ren
azalpenak entzuten.